DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Kirola
Deporte

Anoeta pasealekua, 18 - Tel. 943481850 - 943481880 - udala_kirolak@donostia.eus - www.donostiakirola.eus
20014 Donostia / San Sebastián

Kontratazio esp. Zkia: 2021 /07

ZUBIETAKO BELAR HOCKEYKO UDAL ZELAIA ZERBITZU EMAKIDA BIDEZ USTIATZEKO ETA OBRAK EGIKARITZEKO KONTRATUAREN PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARTICULARES DEL CONTRATO DE CONCESIÓN DE SERVICIOS PARA LA EXPLOTACIÓN DEL CAMPO MUNICIPAL DE HOCKEY HIERBA DE ZUBIETA, CON EJECUCIÓN DE OBRAS

1.- KONTRATUAREN XEDEA	1.- OBJETO DEL CONTRATO
2.- INSTALAZIOAREN DESKRIBAPENA	2.- DESCRIPCIÓN DE LA INSTALACIÓN
3.- EMAN BEHARREKO ZERBITZUAK	3.-SERVICIOS A PRESTAR
4.- ORDUTEGIAK	4.- HORARIOS
5.- PREZIOAK	5.- PRECIOS
6.- KIROL GUNEAK ERABILTZEKO BALDINTZAK	6.- CONDICIONES DE UTILIZACIÓN DE LOS ESPACIOS DEPORTIVOS
7.- GUNE OSAGARRIAK ERABILTZEKO BALDINTZAK	7.- CONDICIONES DE UTILIZACIÓN DE LOS ESPACIOS AUXILIARES
8.- INFORMAZIOA	8.- INFORMACIÓN
9.- ZERBITZUAREN PUBLIZITATEA ETA IRUDIA	9.- PUBLICIDAD E IMAGEN DEL SERVICIO
10.- INSTALAZIOEN EGOERA	10.- ESTADO DE LAS INSTALACIONES
11.- INBENTARIOA	11.- INVENTARIO
12.- USTIAPENAREN KONTUA - MEMORIA	12.- CUENTA DE EXPLOTACIÓN-MEMORIA
I. ERANSKINA: ZUBIETAKO HOCKEYKO KIROL INSTALAZIOAREN PROIEKTUA	ANEXO I :PROYECTO DE INSTALACIÓN DEPORTIVA DEL HOCKEY ZUBIETA
II. ERANSKINA: ZUBIETAKO HOCKEY ZELAIRA OINEZ ETA BIZIKLETAZ SARTZEKO BIDEEN PROIEKTUA	ANEXO II: PROYECTO DE ACCESOS PEATONALES Y CICLISTAS AL CAMPO DE HOCKEY ZUBIETA.
III. ERANSKINA: ELIKAGAI SOLIDOEN ETA LIKIDOEN NUTRIZIO-BALDINTZAK MAKINA SALTZAILEENTZAT.	ANEXO III: CONDICIONES NUTRICIONALES DE LOS ALIMENTOS SÓLIDOS Y LÍQUIDOS PARA LAS MÁQUINAS EXPENDEDORAS.

10740n XVII

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da Donostiako Udalak Zubietan duen hockey zelaia kudeatzeko eta eraikitzeko zerbitzua ematea. Katastro erreferentzia: 7991280; helbidea: Arrapide pasealekua, 960; finka zenbakia: 6122086j.

Kontratuaren xedea da:

a) Donostiako Udalak Zubietan duen hockey zelaiko zerbitzu publikoa kudeatzea.

b) Obrak egikaritzea, baldintza agiri hauei erantsitako proiektuekin bat. Obrak emakidaren lehenengo urtean egin behar dira, eta 12 hilabete iraungo dutela kalkulatu da. Obra proiektuaren aurrekontua, guztira, 3.045.688,67 € da (BEZik gabe). Horren barruan sartuta daude gastu orokorrak eta mozkin industriala. Emakida amaitutakoan, KUPi itzuliko zaizkio obrak. Honako hauek dira, zehazki:

- Hockey zelaia eraikitzea: 2.938.011,86 €.
- Zubietako hockey zelaira oinez eta bizikletaz sartzeko bideak: 57.676,81 €.
- Ekipamendua (aldagelak eta komunak): 50.000,00 €.

1.- OBJETO DEL CONTRATO

Constituye el objeto del presente contrato la prestación del servicio de gestión y construcción del campo municipal de Hockey de Zubieta de Donostia / San Sebastián. Referencia catastral 7991280, con dirección Paseo de Arrapide nº 960, con número de finca 6122086j.

El objeto del contrato comprende:

a) La gestión del servicio público del campo municipal de Hockey de Zubieta de Donostia / San Sebastián.

b) Ejecución de obras conforme a los proyectos que se adjuntan a los presentes Pliegos. El 1er año de concesión deben acometerse las obras que tendrán una duración estimada de 12 meses. El proyecto de obra tiene un presupuesto total de 3.045.688,67€ (sin IVA), incluidos 19% de gastos generales y beneficio industrial, y serán objeto de reversión al PMD al finalizar la concesión. Se trata concretamente de las siguientes:

- Construcción del campo de hockey: 2.938.011,86 €.
- Accesos peatonales y ciclistas al campo de hockey: 57.676,81€.
- Equipamiento (vestuarios y aseos): 50.000,00€.

2.- INSTALAZIOAREN DESKRIBAPENA

Zerbitzu publikoko emakida honen xede den udalaren hockey zelaia Zubieta auzoan dago. Katastro erreferentzia: 7991280; helbidea: Arrapide pasealekua, 960; finka zenbakia: 6122086j.

Instalazioa I. eranskinean jasotako proiektuan deskribatzen da, eta honela osatuko da:

2.- DESCRIPCIÓN DE LA INSTALACIÓN

El Campo Municipal de Hockey Zubieta objeto de esta concesión de servicio público se encuentra ubicado en el barrio de Zubieta, referencia catastral 7991280, con dirección Paseo de Arrapide nº 960, con número de finca 6122086j.

La instalación se describe en el proyecto adjunto como Anexo I y constará de:

- Soropil artifizialeko joko zelai bat, neurri hauek izango dituena: 55,00 m x 91,40 m.

- Ureztatze, saneamendu eta argiztapen instalazioak.

- Eraikin osagarria. Espazio hauek izango ditu:

  - Lau aldagela: horietako bakoitzak dutxak eta komun-aldagela egokitu bat izango ditu.
  - Mantentze biltegia, kirol materialerako biltegia.
  - Komun publikoak.
  - Arbitroen aldagela.
  - Erizaintza. Dopin kontrola.
  - Bulegoak.
  - Jendeari arreta emateko lokala.
  - Biomasa instalazioen gela.
  - Multzo elektrogenoa.
  - Zelaiko instalazioetarako gela: ureztatzea eta argiztapena.
  - Harmaila, 407,30 m^2-koa. 250 eserleku estali jartzeko ahalmena izango du.

- 1 campo de juego de césped artificial con dimensiones: 55,00m x 91,40m.

- Instalaciones de riego, saneamiento e iluminación.

- Edificio complementario que albergará:

  - Cuatro vestuarios, cada uno de ellos con duchas y aseo vestuario adaptado.
  - Almacén de mantenimiento, almacén de material deportivo.
  - Aseos públicos.
  - Vestuario de árbitras.
  - Enfermería. Control antidoping.
  - Oficinas.
  - Local para atención al público.
  - Cuarto de Instalaciones de biomasa.
  - Grupo electrógeno.
  - Cuarto para las instalaciones del campo: riego e iluminación.
  - Graderío con una superficie 407,30 m^2 con capacidad para 250 asientos cubiertos.

3.- EMAN BEHARREKO ZERBITZUAK

Esleipendunak behar diren baliabide guztiak izan beharko ditu instalazioa kirol ekipamenduko erabileren arabera erabiltzeko eta dagozkion zerbitzu guztiak emateko. Horretarako, zelaian egin beharreko egokitzapen guztiak egin beharko ditu, zelaiko kirol modalitateetako partidak eta entrenamenduak egin eta jokatu ahal izateko.

Eskainiko den <u>zerbitzu nagusia</u> honako hau izango da:

Kirol espazioa erabiltzea.

<u>Zerbitzu lagungarriak edota osagarriak:</u>

Emakidadunak eman ahal izango ditu, zerbitzu nagusiaz gain, zerbitzu lagungarri hauek ere:

- Kirol materialerako biltegiak edo kaiolak erabiltzea.
- Bulegoak kirol kluben gestioetarako erabiltzea.

3.-SERVICIOS A PRESTAR

El adjudicatario deberá disponer todos los medios necesarios para que la instalación pueda ser utilizada conforme a los usos de equipamiento deportivo a los que está destinada y se presten todos los servicios correspondientes. Para ello deberá realizar todas las adecuaciones necesarias en el campo para que puedan desarrollar y jugar los diferentes partidos y entrenamientos de las modalidades deportivas del mismo.

El <u>servicio principal</u> que se ofertará será:

La utilización del espacio deportivo.

<u>Servicios auxiliares y/o complementarios:</u>

La concesionaria podrá ofertar otros servicios auxiliares al principal, como:

- La utilización de almacenes o jaulas de material deportivo.
- La utilización de oficinas para gestiones de los clubes deportivos.

- Lokala jendeari arreta emateko erabiltzea.

Adostutako jarraitutasunarekin emango du zerbitzua esleipendunak, eta partikularrei hura erabiltzeko eskubidea bermatuko die, kontratu honetan finkatutako baldintzetan eta, hala behar duenean, dagokion diruzko ordaina ordainduta.

- La utilización del local para atención al público.

La concesionaria deberá prestar el servicio con la continuidad convenida y garantizar a los particulares el derecho a utilizarlo en las condiciones que se establece en el presente contrato y mediante el abono, en su caso, de la contraprestación económica correspondiente.

4.- ORDUTEGIAK

Esleipendunak Zubietako udal hockey zelaiko zerbitzuak emango ditu, ordutegi eta egutegi hauen arabera —gutxienekoak izango dira—:

Denboraldian zehar, abuztuaren 10etik hurrengo urteko ekainaren 10era arte:

Astelehenetik ostiralera:

16:00 - 22:00

Larunbatetan, igandeetan eta jaiegunetan

09:00 – 20:30

Betiere programatutako jarduerak edo erreserba eskaerak gutxienez astebete lehenagotik baldin badaude.

Urtearen gainerakoan:

Instalazioa itxita egon daiteke, baina emakidadunak ireki egin beharko du, txapelketa edo txapelketetarako eskaerarik badago.

Nolanahi ere, instalazioa itxita egon ahal izango da urtarrilaren 1ean eta 20an, abuztuaren 15ean eta abenduaren 25ean.

Ordutegi bereziak ezarri ahal izango dira abenduaren 24an eta 31n, nahiz urtarrilaren 19an, San Sebastian bezperan.

4.- HORARIOS

El adjudicatario ofertará los servicios del Campo Municipal de Hockey Zubieta con arreglo a los siguientes horarios y calendario, que tendrán el carácter de mínimos:

Durante la temporada del 10 de agosto al 10 de junio del año siguiente:

De lunes a viernes

16:00 - 22:00

Sábados, domingos y festivos

9:00 – 20:30

Siempre que haya actividades programadas o solicitudes de reserva con una antelación mínima de una semana.

Resto del año:

La instalación podrá permanecer cerrada, aunque el concesionario tendrá la obligación de abrir si existen solicitudes para torneos o campeonatos.

En cualquier caso, la instalación podrá permanecer cerrada los días 1 y 20 de enero, 15 de agosto y 25 de diciembre.

Se podrán establecer horarios especiales, días tales como el 24 y 31 de diciembre o el día 19 de enero, víspera de San Sebastián.

5.- PREZIOAK

Zerbitzu nagusien gehieneko tarifak, BEZa barne, honako hauek dira:

5.- PRECIOS

Las tarifas máximas, IVA incluido, por los servicios principales son:

		Emakida urtea / Año de concesión			
ZERBITZUAK	PRESTACIÓN DE SERVICIOS	1-6	7-11	12-16	17-21
Zelai erdiko entrenamendu federatuak	Entrenamientos federados medio campo	12,06	13,32	14,70	16,23
Zelai osoko partida ofiziala	Partido oficial campo completo	32,59	35,98	39,73	43,86
Zelai erdiko partida ofiziala	Partido oficial medio campo	16,27	17,97	19,84	21,90

Bestalde, esleipendunak nahi dituen tarifak ezarri ahal izango ditu, zerbitzu osagarriak, laguntzaileak edo kirol produktuak emateagatik. Kasu horretan, esleipendunak urtero aurkeztuko du hurrengo urtean aplikatu nahi dituen tarifen proposamena, administrazio klausulen agiriko 9.2 klausulan ezarritakoaren arabera, berrikus daitezen.

Por otro lado, el adjudicatario podrá establecer de manera libre tarifas por servicios complementarios, auxiliares o productos deportivos. En este caso, el adjudicatario presentará anualmente la propuesta de las tarifas que pretenda aplicar la siguiente anualidad, conforme a lo establecido en la claúsula 9.2 del Pliego de cláusulas administrativas, para su revisión.

6.- KIROL GUNEAK ERABILTZEKO BALDINTZAK

Oro har:

Donostia Kirolak erabakiko du, ebazpen bidez, hockey zelaia nola erabili eta gordeko den, astelehenetik ostiralera, denboraldiko erabiltzaileen entrenamenduetarako. Horretarako, norgehiagoka prozesu bat egingo du.

Prozesu hori urtero zehaztuko da "neguko denboraldian udal kirol instalazioak erabiltzeko erreserbak emateko oinarrietan".

Esleipendunak kudeatuko ditu libre geratzen diren gainerako ordutegiak, bai eta partiden eta ezohiko ekitaldien programazioa ere. Nolanahi ere, asteburuetako programazioan, lehentasuna emango zaie zelaian entrenatzen diren taldeen partida ofizialei.

6.- CONDICIONES DE UTILIZACIÓN DE LOS ESPACIOS DEPORTIVOS

En general:

La utilización y reserva del campo de hockey para los entrenamientos de los diferentes usuarios de la temporada de lunes a viernes los determinará Donostia Kirola mediante Resolución, por medio de un proceso de concurrencia competitiva.

Este proceso se determinará anualmente en las "*Bases para la concesión de reservas de utilización de las instalaciones deportivas municipales durante la temporada de invierno*"

El adjudicatario gestionará el resto de los horarios que queden libres así como la programación de partidos y de cualquier tipo de evento extraordinario. En cualquier caso, en la programación de los fines de semana se dará primero respuesta a los partidos oficiales de los equipos que entrenen en el campo.

Esleipendunak Eusko Jaurlaritzaren esku jarriko ditu belar hockeyan aritzeko eraikitako instalazio horiek, Eusko Jaurlaritzak berak edo eskuordetze bidez funtzio publikoak betetzen dituzten federazioek antolatutako entrenamendu, teknifikazio proiektu eta lehiaketetarako.

El adjudicatario pondrá a disposición del Gobierno Vasco estas instalaciones construidas para la práctica de hockey hierba para la realización de entrenamientos, proyectos de tecnificación y competiciones, organizados por la misma o por las federaciones que ejercen por delegación funciones públicas.

Esleipendunak edonori utziko dio instalazio horretako kirol guneak erabiltzen, betiere kontratu honetan eta KUPen zerbitzuen araudian finkatutako baldintzetan eta berdintasunaren, unibertsaltasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioei jarraikiz.

El adjudicatario deberá permitir la utilización de todos los espacios deportivos integrados en esta instalación a cualquier persona, en las condiciones establecidas en el presente contrato y en el Reglamento de Servicios del PMD, de acuerdo con los principios de igualdad, universalidad y no discriminación.

Eskola kirolaren esparruan:

En el ámbito del Deporte Escolar:

Esleipendunak dohainik utziko du futbol zelaia, eskola kirolaren egitarauaren barruan programatutako partidak egiteko, betiere partaidetza ibilbideko benjamin edota kimu kategorietako lehiaketetakoak badira, eta gainera:

El adjudicatario deberá ceder el campo de hockey de manera gratuita para los partidos programados dentro del programa de Deporte Escolar para la competición de categorías benjamín y/o alevín del itinerario de participación y además:

Laguntza teknikoa eman beharko du larunbatetan, 09:00etatik 14:00etara, zelaian programatzen diren eskola kiroleko partaidetza ibilbideko benjamin edo kimu kategorietako kontzentrazioetan.

Prestar asistencia técnica a las concentraciones de categoría benjamín y/o alevín del itinerario de participación de Deporte Escolar que se programen en el campo los sábados de 09:00 a 14:00.

Instalazioetan egiten diren eskola kiroleko partaidetza ibilbideko jardueretan, laguntza, koordinazio eta are arbitraje lanak egingo ditu.

Colaborar en la asistencia, coordinación e incluso arbitrajes de las actividades de Deporte Escolar del itinerario de participación que se desarrollen en la instalación.

Esleipendunak errespetatu eta errespetarazi egingo ditu Gipuzkoan indarrean dagoen eskola kirolari buruzko araudia eta Donostiako Kirol Eskolako Ekintzen Urteko Programa. Zehazki, esleipendunak kirol eskolen arloko araudia errespetatuko du, eta ikasturtean zehar, dagokion baimena izan ezean, ezin izango du antolatu benjamin eta kimu kategorietako ikasleentzako kirol jarduerarik larunbat goizetan, ikastetxeek egindako lehiaketetarako kiroldegi egutegiak errespetatzeko.

El adjudicatario deberá respetar y hacer respetar la normativa vigente en Gipuzkoa sobre Deporte Escolar así como el programa anual de actividades de Deporte Escolar de Donostia / San Sebastián. En concreto, el adjudicatario respetará la normativa en materia de escuelas deportivas y no podrá organizar ninguna actividad deportiva dirigida a escolares de las categorías benjamín y alevín los sábados por la mañana durante el curso escolar, de forma que se respeten los calendarios polideportivos de competición elaborados por los centros escolares, salvo que medie la correspondiente autorización.

7.- GUNE OSAGARRIAK ERABILTZEKO BALDINTZAK

Bai kirol espazioak, bai espazio osagarriak, planoetan eta agiri honetan adierazten den helbururako baino ez dira erabiliko, KUPen berariazko baimena izan ezean.

Kirol materiala gordetzeko biltegiak eta kaiolak

Emakidadunak, instalazioak hartarako aukera ematen badu, biltegietan kirol materiala gordetzeko tokia bermatuko die zelaiaren erabiltzaileei, hala eskatzen badute.

Lokalak edo bulegoak

Emakidadunak lokal edo bulego bat izango du instalazioa kudeatzeko administrazio erabileretarako. Era berean, instalazioak aukera ematen badu, gainerako klub erabiltzaileen esku jarri ahal izango ditu hockey zelaiaren erabilerarekin zerikusia duten gaiak izapidetzeko lokalak.

Jendeari arreta emateko lokala

Jendeari arreta emateko lokalean, esleipendunak aukera izango du kirol erabilera bat edo kirolerako lagungarri den erabilera bat proposatzeko, atseden eta aisialdi espazio gisa gaitzeko, edaria edo janaria banatzeko makina jarrita, edo taberna/kafetegi zerbitzua emateko.

Horretarako, lokala gaitu eta dagokion lizentzia lortu beharko du.

8.- INFORMAZIOA

Esleipendunak bermatuko du erabiltzaileek instalazioaren funtzionamenduari buruzko informazio guztia izango dutela. Alde horretatik, panel bat jarri beharko du, erraz ikusteko eta iristeko moduko toki batean, eta informazio hau jaso:

- Indarrean dauden tarifak.
- Instalazioaren irekiera ordutegia.
- Erakunde kudeatzailearen izena.

7.- CONDICIONES DE UTILIZACIÓN DE LOS ESPACIOS AUXILIARES

Tanto los espacios propiamente deportivos como los auxiliares deberán ser utilizados solo y exclusivamente con el destino que se indican en los planos y en el presente pliego, salvo que medie autorización expresa del PMD.

Almacenes y jaulas para material deportivo

La concesionaria garantizará, en la medida de las posibilidades de la instalación, que los usuarios del campo que lo soliciten dispongan de un espacio en los almacenes para guardar el material deportivo.

Locales u oficinas

La concesionaria dispondrá de un local u oficina para los usos administrativos asociados a la gestión de la instalación. Asimismo, si la instalación lo permitiera, podrá poner a disposición del resto de clubes usuarios de la instalación locales para tramitar los asuntos relacionados con el uso del campo de hockey.

Local para atención al público

En el local destinado para atención al público el adjudicatario podrá plantear un uso deportivo o auxiliar al deportivo, habilitarlo como espacio de descanso y ocio con máquinas dispensadoras de bebida o comida o prestar el servicio de bar / cafetería.

Para ello deberá habilitar el local y obtener la licencia oportuna.

8.- INFORMACIÓN

El adjudicatario garantizará que las personas usuarias dispongan de toda la información pertinente sobre el funcionamiento de la instalación. En este sentido, habrá de colocar en un lugar visible y de fácil acceso un panel en el que se indique:

- Las tarifas vigentes.
- El horario en el que la instalación permanece abierta.
- El nombre de la entidad gestora.

- Instalazioaren izena.
- Indarrean dagoen legeriarekin bat, nahitaez bete beharrekoak direnak (araudiak, segurtasuna, desfibriladorea...).

- El nombre de la instalación.
- Las que sean de obligado cumplimiento por la legislación vigente (reglamentos, seguridad, desfibrilador...)
-

9.- ZERBITZUAREN PUBLIZITATEA ETA IRUDIA

Entitate kudeatzailearen betebeharrak:

Instalazioaren izena edo kanpoko edo barruko irudia ez erabiltzea publizitatea egiteko edo erakundearen interes esklusibokoa den ezertarako, KUPek aldez aurretik berariazko baimena ematen ez badu. Alde horretatik, "Zubieta Udal Hockey Zelaia" izena erabili beharko da.

Instalazioaren jarduerak edo zerbitzuak zabaltzean, hura titulartasun publikokoa dela adieraztea, eta KUPen logotipoak jartzea, erabilitako bidea edozein dela ere.

KUPek instalazioaren izena daraman errotulu bat jartzen badu sarreran, hura errespetatzea.

Publizitaterako diren espazio perimetraletan, gutxienez 4 m x 1 m-ko errotulu bat gordetzea, lehentasunezko leku batean, Donostia Kirolaren publizitate instituzionala jartzeko. KUPek helaraziko du publizitate horren diseinua.

9.- PUBLICIDAD E IMAGEN DEL SERVICIO

La entidad gestora queda obligada a:

No utilizar el nombre, ni la imagen externa o interna de la instalación con motivos publicitarios o por cualesquiera otros de interés exclusivo de la entidad, excepto que medie autorización expresa previa del PMD. En este sentido, se deberá utilizar la denominación "*Zubieta Udal Hockey Zelaia / Campo Municipal de Hockey Zubieta*"

En cualquier difusión de las actividades o servicios de la instalación, habrá de hacerse constar la titularidad pública de la misma, así como el logotipo del PMD, independientemente del canal utilizado.

Se deberá respetar el rótulo de la entrada con el nombre de la instalación que, en su caso, sea colocado por el PMD.

En los espacios perimetrales dedicados a la publicidad deberán reservar en un lugar preferente un rótulo, de unas dimensiones mínimas de 4m x 1m, con publicidad institucional de Donostia Kirola, y de acuerdo al diseño que facilitará el PMD.

10.- INSTALAZIOEN EGOERA

Esleipendunak dagozkion erabileretarako mantentze, kontserbazio eta garbitasun egoera onean eduki beharko du instalazioa.

Hornikuntzak

Esleipenduna arduratuko da instalazioaren funtzionamendurako beharrezkoak diren hornidura guztiak izateaz, eta bere gain hartuko du haien kostua —ura, gasa, elektrizitatea, produktu kimikoak, garbitzeko materiala...—, zerbitzua baldintza egokietan emateko.

10.- ESTADO DE LAS INSTALACIONES

El adjudicatario deberá disponer la instalación en correcto estado de mantenimiento, conservación y limpieza para los usos a los que está destinada.

Suministros

El adjudicatario se encargará de que se proporcionen y asumirá el coste de todos los suministros necesarios para el funcionamiento de la instalación: agua, gas, electricidad, productos químicos, material de limpieza... para dar el servicio en las condiciones adecuadas.

Mantentze lanak

Esleipendunak mantentze, kontserbazio eta garbitasun baldintza ezin hobeetan eduki beharko du instalazioa, eta, horretarako, behar diren baliabide guztiak jarri beharko ditu. Horretarako, mantentze plan bat eduki eta gauzatu beharko du. Plan horrek, gutxienez, elementu eta ekipo hauek mantentzeko lanak hartu behar ditu kontuan: belar artifiziala, kanpoko berdegune osagarriak, sareak, erramenteria, pintura, desfibriladorea, pertsonak muntatzeko gailua, sua itzaltzeko bitartekoak, estalkiak, segurtasun sokak, instalazio termikoa, iturgintza, saneamendua, ureztatze sarea, argiztapena, instalazio elektrikoa, garbiketa eta izurriteen kontrola.

Mantentze lanak erabateko bermearekin egingo dira; hortaz, sartuta egongo dira, mantentze konponketa eta berrikuspen guztiak ez ezik, kontratua indarrean dagoen bitartean ordeztu edo birjarri beharreko elementuetarako inbertsio guztiak, kontratua amaitutakoan instalazioa egoera onean entregatzeko.

Soilik salbuetsita geratuko dira mantentze lan egokiak egin arren bizitza baliagarriaren amaierara iritsi diren egiturazko elementuak eta estalkiak osorik eraberritzeko inbertsioak. Edonola ere, obra horiek KUPek egin beharko ditu, haren inbertsio planaren barruan, eta kudeatzailearekin ados jarrita planifikatu beharko ditu, instalazioa gutxien erabiltzen den unean egin daitezen. Nolanahi ere, kudeatzaileak ez du izango horregatik KUPen kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik, nahiz eta obra horiek instalazioan ematen diren zerbitzuei eragin.

Araudiek ezarritako mantentze lan guztiak egingo dira, eta, gainera, lanok langile baimenduek egin beharko dituzte, hala eskatzen denean. Era berean, araudian ezarritako ikuskaritza lan guztiak egin beharko dira, eta lan horiek baimendutako kontrol erakundeek egin beharko dituzte.

Horrez gain, legionellatik autobabesteko plan bat idatzi eta ezarri beharko da, bai eta izurriteak kontrolatzeko plan bat ere, hiri izurriteak kontrolatzeko udal ordenantzak eskatutakoa

Operaciones de mantenimiento

El adjudicatario deberá mantener la instalación en perfectas condiciones de mantenimiento, conservación y limpieza, para lo cual deberá aportar todos los recursos necesarios. Para ello, deberá disponer y ejecutar un Plan de Mantenimiento que como mínimo contemple el mantenimiento de los siguientes elementos y equipos: hierba artificial, zonas verdes exteriores complementarias, redes, herrería, pintura, desfibrilador, montapersonas, medios de extinción de incendios, cubiertas, líneas de vida, instalación térmica, fontanería, saneamiento, red de riego, iluminación, instalación eléctrica, limpieza y control de plagas.

Se entenderá el mantenimiento en la modalidad de garantía total, de tal forma que estén incluidas además de todas las reparaciones y revisiones de mantenimiento, todas las inversiones necesarias para la sustitución o reposición de aquellos elementos que así lo requieran durante la vigencia del contrato, para su entrega en perfecto estado una vez finalizado éste.

Quedarán exentas únicamente aquellas inversiones de reformas integrales de elementos estructurales, cubiertas, que a pesar de un adecuado mantenimiento hayan llegado al final de su vida útil. En su caso serían obras que acometería el PMD dentro de su plan de inversiones y que planificaría de acuerdo con el gestor en el momento de menor utilización. En cualquier caso, no darían ningún tipo de derecho a indemnización por parte del PMD al gestor por las afecciones a los servicios que se prestan en la instalación.

Se realizarán todas aquellas operaciones de mantenimiento exigidas por las correspondientes normativas y además deberán ser realizadas por personal autorizado cuando así se exija. Asimismo, se deberán realizar tantas inspecciones por Organismos de Control Autorizados como al normativa establezca.

También deberá redactar e implantar un Plan de Autoprotección, de Legionella así como un Plan de control de plagas que cumpla lo exigido por la Ordenanza municipal reguladora del control de

betetzen duena.

plagas urbanas.

Belar artifizialaren kasuan, urteko mantentze lanetan, gutxienez, honako lan hauek sartu beharko dira:

En el caso de hierba artificial, el mantenimiento anual deberá incluir, como mínimo, las siguientes operaciones:

- Enpresa espezializatu batek urteko berrikuspena egitea.

- Revisión anual por empresa especializada.

- Zelaia ureztatzea.

- Riego del campo.

- Ureztatze sistema berrikustea.

- Revisión del sistema de regadio.

- Zelaiaren azalera garbitzea.

- Limpieza de la superficie del campo.

Junturak eta kolatzeak aldizka egiaztatzea, beharrezkoa bada.

Verificación de juntas y encolado puntual si fuera necesario.

Kanaletak garbitzea.

Limpieza de canaletas.

- Inbertsioen urte anitzeko plana

Kudeaketaren 11. urtean, belarra aldatuko da, 200.000 €-an, eta, urte horretatik aurrera, gutxienez 5.000 € inbertituko dira urtean, esleipendunak beharrezkotzat jotzen dituen esku-hartzeetarako: izan daiteke instalazioaren prestazioak hobetzeko edo eskaera berrietara egokitzeko; eraikuntza elementuen edo instalazio teknikoen egoera hobetzeko; kirol erabilerak eta jarduerak hobetzea eta optimizatzea dakarten lanak egiteko, edo energia optimizatzeko edo antzeko jarduerak egiteko.

Horretarako, inbertsio plan bat egingo da. Plan hori kudeaketaren 11. urteko lehen hiruhilekoan aurkeztuko da, eta alderdi hauek hartuko ditu kontuan:

- Plan de inversiones plurianual

En el año 11 de gestión se cambiará la hierba por un importe de 200.000 € y desde ese mismo año se invertirá un mínimo de 5.000€ anuales en intervenciones que el adjudicatario estime necesario acometer para la mejora de las prestaciones de la instalación o adecuación a las nuevas demandas o por el estado de los elementos constructivos o instalaciones técnicas o que supongan una mejora y optimización de los usos deportivos y de actividades o actuaciones para la optimización energética o similares.

Para ello, elaborará un plan de inversiones que presentará el primer trimestre del año 11 de gestión y que contemplará:

- Sare perimetralak aldatzea.

- Cambio de las redes perimetrales.

- Errementeria elementuak —hala nola ateak, hesiak eta barandak— aldatzea, hondatuta badaude.

- Sustitución de aquellos elementos de herrería como puertas, vallas, barandillas... que se encuentren deterioradas

- Instalazioa egokitzea, eraberritzea eta modernizatzea, zerbitzuak behar bezala emateko behar diren ezaugarri tekniko eta funtzionaletara egokitzeko.

- La adecuación, reforma y modernización de la instalación para adaptarla a las características técnicas y funcionales requeridas para la correcta prestación de los servicios.

- Harmailetako estalkiaren egitura (zutabeak eta habeak) saneatzea eta margotzea

- Saneado y pintado de la estructura (pilares y vigas) de la cubierta del graderío.

Ezin izango da obrarik edo aldaketarik egin instalazioan KUPen aldez aurreko baimenik gabe. Horrez gainera, beharrezkoak diren gainerako lizentziak lortu beharko dira.

No se podrán realizar obras ni modificaciones en la instalación sin previa autorización del PMD, sin perjuicio del resto de licecias que deban obtenerse.

Emakidadunak jarritako altzariek eta materialek, oro har, eman beharreko zerbitzuari eta Administrazioak jarritako instalazioei dagozkien baldintzak bete beharko dituzte, kontratuan xedatutakoaren arabera.

Las materiales, mobiliario y materiales en general aportados por la concesionaria deberán reunir, de conformidad a lo estipulado en el contrato, las condiciones correspondientes al servicio que ha de prestarse y a las instalaciones facilitadas por la Administración.

Instalazioan sortutako hondakinak gaika jaso beharko dira; frakzio hauek bereiziko dira: papera eta kartoia, ontzi hutsak, beira, biohondakinak eta gainerakoak. Zati bakoitza frakzio horri dagokion edukiontzian utziko da. Nahitaezkoa izango da biohondakinak bereiz biltzea eta kudeatzea. Hala badagokio, taberna edo garbiketa enpresa kudeatzen duenak bosgarren edukiontzia erabiltzeko txartela eskatu beharko du.

Los residuos generados en la instalación deberán recogerse de forma selectiva, separando las siguientes fracciones: papel y cartón, envases vacíos, vidrio, biorresiduo y resto. Cada fracción se depositará en el contenedor correspondiente a dicha fracción. La recogida y la gestión separada del biorresiduo será obligatoria. En su caso, quien gestione el bar y/o la empresa de limpieza deberá solicitar la tarjeta necesaria para poder utilizar el quinto contenedor.

Kontratua hasi eta hiru hilabeteko epean, esleipendunak papera, ontzi hutsak, beira, biohondakinak eta gainerakoak gaika biltzeko zakarrontziak jarri beharko ditu. Zakarrontziak multzoka jarriko dira beti, eta frakzio bakoitzerako erabili ohi diren kolorekoak izango dira (urdina, horia, berdea, marroia eta grisa, hurrenez hurren). Toki batean frakzioren bat sortzen ez bada, ez da zertan jarririk izango frakzio horretarako zakarrontzirik (adibidez, bulegoetan, ontzi marroia).

En el plazo de 3 meses desde el inicio del contrato el adjudicatario deberá instalar papeleras para la recogida selectiva de papel, envases vacíos, vidrio, biorresiduo y resto. Las papeleras se colocarán siempre agrupadas, y serán de los colores que se utilizan habitualmente para esas fracciones (azul, amarillo, verde, marrón y gris respectivamente). En cada ubicación, se podrá prescindir de las papeleras correspondientes a las fracciones que no se generen en ese lugar (por ej., de la papelera marrón en las oficinas).

Komunetako eta aldageletako paperak —komunekoak eta eskuak lehortzekoak— I. motako ekoetiketa baten betekizunak bete behar ditu. Erabiliko diren produktuen fitxa teknikoa eta hornitzaile batekin hartutako erosteko konpromisoa aurkeztu beharko dira.

El papel higiénico y el papel de secado que se utilicen en los aseos y vestuarios deberán cumplir los requisitos de alguna ecoetiqueta de tipo I (ángel azul o similar). Se deberá presentar la ficha técnica de los productos que se van a utilizar y el compromiso de compra con un proveedor.

Instalazioak garbitzean ezingo dira erabili:

- Aire gozagarriak

En la limpieza de las instalaciones no podrán utilizarse:

- Ambientadores

- Komunontzietarako pastilla edo substantzia perfumatuak

- Pastillas o sustancias perfumadas para urinarios

- Espraiak

- Productos en espray

- Garbiketa orokorrerako desinfektatzaileak edo desinfektatzaileak dituzten produktuak (esaterako, lixiba), komunetan, dutxetan eta aldageletan erabiltzeko ez bada.

- Desinfectantes o productos con desinfectantes (como la lejía) para la limpieza general, excepto en los aseos, duchas y vestuarios.

Mantentze lanak egitean —adibidez, pintatzean, garbitzean, herbizidak edo biozidak aplikatzean eta abar— hondakin arriskutsurik sortzen bada, hondakin horiek kudeatzaile baimendu batekin kudeatu dituztela egiaztatzen duten agiriak eskatuko zaizkie lan horiek egin behar dituzten enpresei .

Se exigirá a las empresas que realicen trabajos de mantenimiento en los que se generen residuos peligrosos (como puede ser el pintado, la limpieza, la aplicación de herbicidas o de biocidas, etc.) los documentos que acrediten que los residuos peligrosos se han gestionado con un gestor autorizado.

Kafetegia eta makinak (hala badagokio)

Cafetería y máquinas expendedoras (en su caso)

Ezingo da erabili erabilera bakarreko edalontzirik, platerik edo mahai tresnarik Horiek denek garbigarriak eta berrerabilgarriak izan behar dute. Nahi duenari iturriko ura emango zaio, pitxerretan edo edalontzietan.

No podrán utilizarse vasos, platos ni cubiertos de un solo uso. Todos ellos deberán ser lavables y reutilizables. Se deberá ofrecer agua del grifo en jarras o vasos a quien lo desee.

Tabernan zerbitzatzen den kafea eta azukrea, halakorik badago, bidezko merkataritzari eta garapenari buruzko Europako Parlamentuaren Ebazpenean (A6-0207/2006) ezartzen diren parametroak betez ekoitzitakoak izango dira. Produktu horien hornitzaile batekin erosteko konpromisoa eta ziurtagiria aurkeztu beharko dira.

Todo el café y el azúcar que se sirvan en el bar, si lo hubiera, deberán haberse producido cumpliendo los parámetros de la Resolución del Parlamento Europeo sobre Comercio Justo y Desarrollo (A6-0207/2006). Se deberá presentar el compromiso de compra con un proveedor de estos productos y su certificado.

Makina bidez saltzen diren produktuek elikagai osasungarriak izan beharko dute, eta III eranskinean ezarritako nutrizio baldintzak bete beharko dituzte.

Los productos que se vendan mediante máquinas distribuidoras, deberán ser alimentos saludables y cumplir con las las condiciones nutricionales establecidas en el Anexo III.

11.- INBENTARIOA

Instalazioaren ustiapen kontuetan zordunduta erositako ondasunak instalazioari atxikita geratuko dira eta KUPi itzuliko zaizkio emakida amaitzean.

11.- INVENTARIO

Los bienes adquiridos con cargo a las cuentas de explotación de la instalación quedarán adscritas a la instalación y revertirán al PMD al finalizar la concesión.

Era berean, kudeatzaileak bere kontura egiten dituen obrak eta instalazioak instalazioari atxikita geratuko dira, eta, kontratua amaitzen denean, instalazioarekin batera itzuliko dira.

Del mismo modo, las obras e instalaciones que realice el gestor a su costa quedarán adscritas a la instalación y revertirán con el conjunto de la misma en con la finalización del contrato.

Emakidadunak eguneratuta eduki beharko du III. eranskinean jasotako instalazioaren deskribapen fitxa.

La concesionaria está obligada a mantener actualizada la ficha descriptiva de la instalación que se adjunta en el Anexo III.

12.- USTIAPENAREN KONTUA - MEMORIA

1. **Bigarren urtean** (obrak amaitu ondoren eta ustiapena hasi eta hiru hilabeteko epean) honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Urteko mantentze plana

b) Legionellaren autokontrol plana

c) Izurriteak kontrolatzeko plana.

d) Lan arriskuak prebenitzeko plana

2. Halaber, **urte bakoitzeko urriaren 31 baino lehen**, itxiera-memoria bat aurkeztu beharko du, aurreko urtearekin alderatuta, eta honako hauek jasoko ditu:

Esparru ekonomikoa

a) Ustiapenaren urteko kontuak, KUPek emandako inprimakiaren araberakoak.

b) Partida eta entrenamenduek ekarritako sarreren xehetasuna.

c) Langileen kontratuak: zerbitzuak entitate kudeatzailearen kontura eman dituzten langileekin sinatutako lan kontratuen kopia eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean edukitzearen ziurtagiria.

d) Erantzukizun zibileko aseguru polizaren eta gainerako berme kontratatuen ordainketa eguneratuaren kopia

e) Egindako inbertsioen zerrenda eta fakturak.

12.- CUENTA DE EXPLOTACIÓN-MEMORIA

1. **El segundo año** (una vez finalizadas las obras y en el plazo de tres meses desde el comienzo de la explotación) deberá entregar la siguiente documentación:

a) Plan de mantenimiento anual.

b) Plan de autocontrol de legionella.

c) Plan de control de plagas

d) Plan de Prevención de riesgos laborales.

2. Asimismo **antes del 31 de octubre de cada año** deberá presentar una memoria de cierre con respecto al año anterior y que constará de:

Ámbito económico

a) Cuenta anual de explotación del año anterior, según impreso facilitado por el PMD.

b) Detalle de los ingresos por los partidos, entrenamientos y otros existentes.

c) Contratos de personal, copia de los contratos laborales con los trabajadores dedicados a la prestación del servicio a cuenta de la entidad gestora y justificación de estar al corriente de sus obligaciones con la Seguridad Social.

d) Copia del abono actualizado de la póliza del seguro de responsabilidad civil y demás garantías conratadas.

e) Listado y facturas de inversiones realizadas.

f) Hornidura, ur, gas eta bestelako' horniduren fakturen kopia.

g) Entitate kudeatzailearen eta tabernaren zuzeneko kudeatzailearen arteko kontratuaren kopia.

f) Copia de las facturas de suministros de luz, agua, gas y otros.

g) En su caso, copia del contrato entre la entidad gestora y el gestor directo del bar.

Mantentze esparrua

g) Espazioak eta instalazioak mantentzeko, garbitzeko eta kontrolatzeko liburua, egindako lan guztiak jasotzen dituena.

h) Instalazioen nahitaezko ikuskaritzari dagozkion ziurtagiriak: behe tentsioa, galdarak eta instalazio termikoa, igogailuak...

i) Segurtasun soken urteko berrikuspena, hala badagokio

j) Desfibriladoreen urteko berrikuspena.

k) Laneko arriskuen prebentziorako plana indarrean dagoen legedian xedatutakoaren arabera gauzatzea

l) Legionellaren autokontrol planeko ekintzak egin izanaren ziurtagiria.

m) Izurriteak kontrolatzeko planeko ekintzak egin izanaren ziurtagiria.

n) Instalazioa mantentzeko lanetan sortutako hondakin arriskutsuen kudeaketari (enpresa esleipendunak edo azpikontrataturiko enpresek egindako kudeaketari) dagokion dokumentazioaren kopia.

o) Faktura hauen kopia:

- Belarra mantentzea, enpresa erregistratuaren bidez.
- Instalazio termikoak, elektrikoak mantentzea.
- Ureztatze sistema mantentzea.
- Sua itzaltzeko bitartekoak.

Ámbito de mantenimiento

g) Libro de mantenimiento, limpieza y control de todos los espacios y las instalaciones, detallando las operaciones realizadas.

h) Certificados de inspección obligatoria de instalaciones: Baja Tensión, calderas e instalación térmica...)

i) Revisión anual de líneas de vida, en su caso.

j) Revisión anual de desfibriladores.

k) Ejecución del plan de prevención de riesgos labores de acuerdo con lo dispuesto en la legislación vigente.

l) Certificado de haber realizado las acciones del plan de autocontrol de legionella.

m) Certificado de haber realizado las acciones del plan de control de plagas.

n) Copia de la documentación correspondiente a la gestión de los residuos peligrosos generados en el mantenimiento de la instalación (por la empresa adjudicataria o por las empresas subcontratadas).

o) Copia de las facturas por:

- Mantenimiento de la hierba mediante empresa registrada.
- Mantenimiento de las instalaciones térmicas, eléctricas.
- Mantenimiento del sistema de riego.
- Medios de extinción de incendios.

- Goragailuak mantentzea, halakorik badago.

a) Inbentario eguneratua.

Kirol esparrua

b) Okupazioaren ordutegiaren koadroa (taldeen sexua eta kategoria zehaztu behar da)

c) Programatutako dinamizazio jarduerak (txapelketak, eskolak...)

- Mantenimiento de elevadores, en su caso.

p) Inventario actualizado.

Ámbito deportivo

q) Cuadro horario de la ocupación (marcando sexo y categoría de los equipos).

r) Actividades de dinamización programadas (torneos, escuelas...)

Emakidadunak hitzematen du KUPeko zerbitzu teknikoek emakidaren jarraipena egiteko antolatzen dituzten bileretara joango dela.

La concesionaria se compromete a asistir a las reuniones de seguimiento de la concesión que se convoquen por parte de los servicios técnicos del PMD.

Donostian 2021eko-uztailaren 14an

Sin/ Fdo.

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Donostia Kirola

ANEXO III. ERANSKINA

ELIKAGAI SOLIDOEN ETA LIKIDOEN NUTRIZIO-BALDINTZAK MAKINA SALTZAILEENTZAT.	CONDICIONES NUTRICIONALES DE LOS ALIMENTOS SÓLIDOS Y LÍQUIDOS PARA LAS MÁQUINAS EXPENDEDORAS.
a) Koipe, azukre eta gatzaren edukietarako ezarritako mugak, ontziratutako edo merkaturatutako zati bakoitzeko:	a) Límites establecidos para el contenido de grasas, azúcares y sal, por porción envasada o comercializada:
Hirugarren taldeko produktu guztiek (elikagai solidoak) eta, gutxienez, bigarren taldeko produktuen (edari hotzak)% 60k atal honetan ezarritako nutrizio-gomendioak bete beharko dituzte.	Todos los productos del tercer grupo (alimentos sólidos) y al menos el 60% de los productos del segundo grupo (bebidas frías) disponibles en las máquinas deberá cumplir las recomendaciones nutricionales establecidas en este apartado.
b) Osasungarri gisa eskainitako produktuek nutrizio-eskakizun hauek bete beharko dituzte:	b) Los productos ofertados como saludables deberán cumplir las siguientes exigencias nutricionales:
• Ontziratutako edo merkaturatutako zatiak 200 kkal-eko balio energetikoa izango du gehienez.	• La porción envasada o comercializada tendrá un valor energético máximo de 200 kcal.
• Gehienez ere, kkalen% 35 koipeetatik etorriko da (7,8 g-ko edukiaren baliokidea da, 200 kkal-eko zati batean).	• Como máximo un 35% de las kcal procederán de las grasas (equivale a un contenido de 7,8 g en una porción de 200 kcal).
• Gehienez ere kkalen% 10 gantz aseetatik etorriko dira (2,2 g-ko edukiaren baliokidea da 200 kkal-eko zati batean).	• Como máximo un 10% de las kcal procederán de las grasas saturadas (equivale a un contenido de 2,2 g en una porción de 200 kcal).
• Trans gantz-azidorik ez izatea, esnekietan eta haragi-produktuetan modu naturalean daudenak izan ezik.	• Ausencia de ácidos grasos trans, excepto los presentes de forma natural en productos lácteos y cárnicos.
• Gehienez ere, kkalen% 30 guztizko azukreetatik etorriko dira (15 g-ko edukiaren baliokidea da 200 kkal-eko zati batean).	• Como máximo un 30% de las kcal procederán de los azúcares totales (equivale a un contenido de 15 g en una porción de 200 kcal).
• Gehienez 0,5 g gatz (0,2 g sodio).	• Un máximo de 0,5 g de sal (0,2 g de sodio).

• Muga horiek ez zaizkie aplikatuko fruitu lehorrei, baldin eta azukre edo koipe erantsirik ez badute (ez frijiturik, ez olioarekin txigorturik), eta gatz-edukia atal honetan ezarritako muga baino handiagoa ez bada. Fruta eta barazkietan berez dagoen azukrea ere ez da zenbatuko.	• Estos límites no serán de aplicación a los frutos secos siempre que no contengan azúcares ni grasas añadidas (ni fritos, ni tostados con aceite), y cuyo contenido en sal no supere el límite establecido en este apartado. Tampoco se computará el azúcar presente naturalmente en frutas y verduras.
c) Ez da eskainiko etiketatuta egon behar duen produkturik, bere formulazioan genetikoki eraldatutako organismoetatik eratorritako osagaiak dituelako, genetikoki eraldatutako elikagai eta pentsuei eta genetikoki eraldatutako organismoen trazabilitateari eta etiketatzeari buruzko 1829/2003 eta 1830/2003 (EE) Erregelamenduekin bat etorriz.	c) No se ofrecerá ningún producto que deba estar etiquetado por contener en su formulación ingredientes provenientes de organismos genéticamente modificados de acuerdo con el Reglamento (CE) nº 1829/2003 y 1830/2003 sobre alimentos y piensos modificados genéticamente y trazabilidad y etiquetado de organismos modificados genéticamente (OMG) y de los alimentos y piensos producidos a partir de éstos.
d) Edari beroak saltzeko makinetan azukrearen edukia erregulatzeko aukera egongo da beti.	d) En las máquinas expendedoras de bebidas calientes siempre existirá la opción de regular el contenido del azúcar.
e) Hotzean kontserbatu beharreko produkturik ez duten makinek programatuta egon beharko dute kokatuta dauden eraikineko langileen lan-ordutegian bakarrik piztuta egon daitezen.	e) Las máquinas que no contengan productos que deban conservarse en frío deberán estar programadas para que estén encendidas solo durante el horario de trabajo del personal del edificio donde se ubiquen.
f) Makinek hornitzen dituzten ontziak birziklagarriak izan beharko dira.	f) Los vasos que suministran las máquinas deberán ser reciclables.
g) Edari beroen makina guztiak kafe aleak izango dira (kafe deskafeinatua izan ezik).	g) Todas las máquinas de bebidas calientes serán de café en grano (excepto el café descafeinado).
h) Edari beroen makinen kafea "bidezko merkataritza" izenekoaren bidez erosi beharko da, dagokion "UTZ ziurtagiria" egiaztagiriarekin batera, eta KUPek hori berrikusi ahal izango du baimenaren edozein unetan, egiaztatzeko eta betetzeko. Kafe makinetan, argi eta garbi agertu beharko da kafea "bidezko merkataritzaren" bidez erosi dela egiaztatzen duen ziurtagiria, eta marka eta kalitate bereko	h) El café de las máquinas de bebidas calientes deberá ser adquirido a través del denominado "Comercio Justo", con su correspondiente certificación acreditativa "Certificado UTZ", la cual podrá ser revisada por el PMD en cualquier momento de la autorización a efectos de su verificación y cumplimiento. En las máquinas de café, deberá figurar con claridad el certificado que acredite que el café ha sido

kafea erabili beharko da makina guztietan.	adquirido a través del "Comercio Justo" y se deberá utilizar el café de la misma marca y calidad en todas las máquinas.
i) Makinak behar bezala identifikatuta egongo dira, makinaren kanpoaldean argi eta garbi eta ikusteko moduan, euskaraz eta gaztelaniaz (euskarari lehentasuna emanez), makinaren eredua eta kodea, bai eta makinen mantentze-lanez arduratzen den pertsonaren edo enpresaren izena, helbidea eta telefonoa ere, non erabiltzaileak kexak eta erreklamazioak egin ahal izango dituen. Horretarako, salmenta-makina guztietan argi eta garbi adierazi beharko da, euskaraz eta gaztelaniaz (euskarari lehentasuna emanez), zein den salduko den produktua, prezioa, onartzen duten txanpon mota eta nahi den produktua lortzeko jarraibideak.	i) Las máquinas estarán debidamente identificadas, indicando la forma clara y visible, en la parte exterior de la máquinas, en euskara y castellano (dando prioridad al euskara) el modelo y código de la máquina, así como el nombre, la dirección y el teléfono de la persona o empresa responsable del mantenimiento de la máquinas, donde el usuario podrá dirigir quejas y reclamaciones. A tal objeto, en todas las máquinas de venta deberá figurar con claridad, en euskera y en castellano (dando prioridad al euskera), cuál es el producto que se expende, su precio, tipo de monedas que admiten e instrucción para la obtención del producto deseado.